

Nola erabili kantak ikasgelan euskara ikasteko: zenbait gogoeta eta ariketa bat

Gaizka Aurtenetxe

Jakin badakigu euskara-irakasleok, gure programazioan kantak sartu behar direna, bai gogoko ditugulako, bai ikasleek eskatzen digutelako. Baina ba ote dakigu kantei etekina ateratzen? Pozik ateratzen ote gara, gogoko kanta eta horren gaineko ariketa bat hartu, eta ikasgelara joan garenean? Artikulu honek galdera ilun horiei eta antzeko beste batzuei argitasun pixka batez erantzun nahi die.

Ikasgelan entzumena lantzeko eskura ditugun hainbat baliabideren artean, kantak izaten dira gogokoenetarikoak, beharbada zergatiak oso argi ikusi barik. Dena dela, hara non hartzen ditugun kanta ezagun baten fotokopiak, kasete-zinta eta guzti, eta klasea ematera goazen, entzumena lantzerara. Handik hogeit minutura amaitu dugu ariketa, eta klasera sartzerakoan genituen ilusio eta pozak (“A ze kanta polita!” eta “Honekin pozik zer egongo dira ikasleak!”) pixka bat hoztuta, eta geure buruari galdera hauek eginez: “Zer lortu dut honekin? Zer ikasi dute ikasleak?”.

Ez dakit beste irakasle bati holakorik inoiz gertatu ote zaion, bai niri, ordea; eta horrek hausnarketa txiki bat egitera bultzatu nau, eta irakurtzen ari zaren artikulu hau duzu, hain zuzen ere, horren fruitua.

Kanta ikasleen gustukoa izatea pisuzko irizpidea da, noski; ez bakarra, ordea. Etekina da orain aipatu nahi dugun hitza. Irakasleoi ariketa berba entzun edo irakurtzen dugunean berehala datorkigu burura galdera: “Baina etekina, zelan atera etekina kanta bati?” Eta horrekin batera beste hauek: “Entzumena baino ez dugu landuko? Gure helburua kanta buruz eta osorik ikastea ote da? Ba ote du lekurik gramatikak kantak lantzerakoan? Trebetasun bat besterik ez dugu landuko? Horrelako hainbat galdera etor dakizkiguke burura, baina, zergatik ez uztartu gramatika eta gainontzeko trebetasunak bati besteei baino garrantzi handiagoa emanez? Zergatik ez, inprobisazioari lekua utzi barik matea prestatu, bost, sei, zazpi, hamar jokaldi lehenago, xakean bezala? Edo azken puntua azken errematea emateko prestatu, aurreko bertsoen bidez, bertolaritzan bezalaxe? Baina zelan?”

Har dezagun Errobiren kanta bat “Hamar manamenduak”. Jakin bada-
kit batek baino gehiagok pentsa lezakeena duela hogeituroko taldea
dela, eta agian zahartuxe edo egon litekeela gaur egun. Baina Errobi
lehen euskal rock-taldea izan zen eta informazio hori baliozkoa izan
liteke ikaslearen jakinmina eta, horrekin batera, ikaslearen aurreko
jarrera ona sustatzeko.

Mintzamen-saio batekin hasiko gara. Ikasleei taldeka hitz egiteko puntu
batzuk emango dizkiegu, orokorrenetatik zehatzenetaraino, hau da,
ikaslea nahi dugun “tokira” eramango dugu. Galderak edo puntuak
hauek izan litezke:

.1:

-
- *Gogoko duzu musika? Eta musika klasikoa? Zein konpositore? Eta roc-
ka? Zein talde?*
 - *Badakizu noiz sortu zen rocka? Zein talderekin?*
 - *Badakizu talde-izen berezirik? Zer adierazten dute izen horiek?*
 - *Zeintzuk dira musikak eman dituen mitoak? Zergatik bihurtu dira mito?*
 - *Eta Euskal Herrian zein izan zen lehen rock-taldea?*
 - *Gogoratzen dituzu lehengo festibalak? Nolakoak ziren gaurkoen aldean?*
 - *Zein nahiago duzu, lehengo edo gaurko musika?*
 - *“Igarotako edozein garai hobea izan da”. Egia ote?*
 - *Testu bat irakurriko duzu. Zeri buruzkoa izango da zure ustez?*
-

Ikasleei gogorarazi behar zaie ariketaren atal horren helburua mintza-
mena lantzea dela, hau da, ez duela balio “bai” edo “ez” erantzuteak.
Mintzamen-saioa luzatu gura bagenu, taldeko moderatzaile bat jarriko
genuke puntu bakoitzaren gainean esaten dena jaso dezan. Honetan
moderatzaileei gutxiago hitz egiteko esango genieke, baina kontuz! hitz
egitea badutela azpimarratuz, zeren sarri askotan hori esanda, mutu
geratzen baitzaizkigu. Hurrengo pausoa, talde osoak borobil bat osatuko
du; moderatzaileek punturik puntu taldean esandakoaren berri emango
ligukete.

Puntuak aztertuz, ikus dezakegu azkenekoak irakurgaitxo bati zabaltzen
dizkiola ateak. Galdera horien bidez, beraz, ikaslea kantarako ezezik,
irakurgaitxo baterako ere ari gara prestatzen, irakurtzeko grina bizten.
Jakina, irakurgaiak musika izango du gai, “Errobi” taldearen gorabehe-
rak hain zuzen ere. *Eginek* argitaratutako euskal kanten bildumarekin
batera plazaratu zuen letren eta taldeen historia zuen liburuskatik aterata
dago testua; erreala da beraz. Horrekin batera ariketatxo bat, binaka edo
talde zabalagoetan burutzekoa eskatuko diegu, ikasleen arteko negozia-
ketarako bidea zabalduko baitugu horrela; eta interakzio hori areagotu
gura bagenu, erantzunak beste bikote edo talde batenekin alderatzeko
esango genieke. Testua eta galderak hauek izan litezke:

Iparralde guztia zeharkatzen duen ibaia da Errobi, baita lehen euskal rock taldearen izena ere. Ezaguna izan zen lehen rock taldearena bederen.

Lehen diskoa 1975aren amaieran kaleratu zuen "Errobi"k, baina taldearen jatorria ezagutzeko bost urte atzerago jo behar da. Garai hartan berbena talde batean jotzen zuen Anje Duhaldek, Daniel Landart ezagutu zuen. Honen letrekin disko txiki bat atera zuen. Disko horretan Mixel Ducauk parte hartu zuen. Hor hasi ziren Duhalde eta Ducauren arteko harremanak. Eta harreman horren ondorioz sortu zen "Errobi"

Ordurako "Ez dok Hamairu" deseginda zegoen eta euskal kantariak gitarra soil batekin abesten zuten. "Errobi"koak diferenteak ziren. Ahotsen jokoak egiten zituzten eta kanpotik zetorren musika sartu nahi zuten gurean.

Oso harrera ona izan zuten eta 1979an desegin ziren arte jaialdi asko eman zituzten.

Bikoteak urtero disko bat atera zuen: 1976an "Gure lekukotasuna" (Landarten testuekin), 1977an "Alboka", 1978an "Bizi bizian", eta "Agur t'erdí". Taldea handitu egin zen, Duhalde eta Ducaurekin batera Beñat Amorena eta Jean Pauk Tills jotzen hasi zirenean. Hauek azken bi diskoetan hartu zuten parte. 1979ko urrian bereizi ziren "Ametsaren bidean" diskoa izan zen despedida. Egin zuten osterara biltzeko ahalegin bat, 1985ean, baina ez zen ondo atera.

"Errobi"ren diskorik salduena da eskuartean duzun "Bizi bizian" hau. Zuzenean grabatu zen Azkoitian eta Tolosan emandako jaialdietan.

	EGIA	GEZURRA
1 Errobi lehen euskal rock-taldea izan zen		
2 Lehen diskoa bost urte beranduago atera bazuen ere taldearen jatorria 1970. ean koka genezake		
3 Daniel Landartek berbena-talde batean jotzen zuen		
4 Errobiren lehen diskoa Mixel Ducauk eta Anje Duhalderen arteko harremanen ondorioz atera zen		
5 Errobi taldea orduko euskal kantariak ez bezalakoa zen		
6 1979.ean desegin ziren harrera ona izan ez zutelako		
7 Taldea handitu zenean alboka sartu zuten		
8 Errobiren diskorik salduena zuzenean grabatu zen		

Ariketaren bigarren atala amaiturik, ikasleek kanta entzuteko prest egon behar lukete. Kanta jarriko diegu, eta horrekin batera betebeharra eman:

.3:

ERROBIREN KANTA BAT ENTZUNGO DUZU BIRRITAN, "LANTEGIKO HAMAR" MANAMENDUAK HAIN ZUZEN ERE. EA ZENBAT ULERTZEN DUZUN.

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____
- 4 _____
- 5 _____

-
- ZURE IKASKIDE BATENEKIN KONPARA ITZAZU
 - KANTA HORRETAN ZEIN AKATS IKUSTEN DUZU?
 - AKATSA DA ZURE USTEZ?
-

Berriro entzun aurretik, ikasleak binaka edo hirunaka jarriko dira, eta bateratu egingo dute jasotako informazioa.

Atal hau bukatzeko, ikasleari kantaren letra ematen badiogu, autoebaluazioa bultzatuko dugu, hau da, ikasleak berak ebaluatuko du zenbateraino ulertu duen, eta, horrela, ikaslearen autonomia ere ari gara sustertzen bide batez, baita horiek bezain garrantzitsuak izan litezkeen intimitatea eta errespetua ere. Ikasleak ariketan porrot egin badu, hainbat izan daitezke arrazoiak (ez duela gogoko izan abestia, egun txarra izan du...) eta ez ezinbestean ezagutza urria; beraz, ez dugu "barregarri" utziko honen antzeko galdera eta erantzunekin "Ea Juan, zenbat asmatu dituzu?" "Bat baino ez" edo "Bat ere ez".

Eta gramatikak? Non ote dauka gramatikak lekua ariketa honetan? Goazen orain ingelesezko kantetara, oso ezaguna den talde eta bere abesti batekin, Pink Floyd-en "The wall"-ekin. Pentsa ezazu abesti hori euskal talde batek sortu duela eta horren antzeko ariketa bat egin ondoren, *ezezkoak* eta behar aditza azaldu duela irakasleak hiru minutuko azalpen txiki batez, "We don't need education..." (Ez dugu edukaziorik behar...). Ikaslea klasetik irten, eta etxerako edo tabernarako bidean, abestia eta lelo hori burutik kendu ezinik balebil, nekez ahaztuko litzaioke ikasi duena (ingelesez tutik ere jakin gabe, hori behintzat ikasi egin nuen). Horrexegatik, bada, kanta ikaslearen gustukoa izatea azpimarratzearen garrantzia, "gustuak" oso subjektiboak eta sarritan asmaezinak direla jakin arren. Horrekin lotuta, geure abestira etorri, irakasleak ikusi beharko luke ikasleen maila zein den, zeren eta hainbat baitira hemendik jorra daitezkeen egitura gramatikalak, esate baterako, behe-urrats batean etorkizuna da horretan etengabe errepikatzen dena. Edo Iparraldeko lexikoarekin lehen kontaktua edozein urratsetan eman daitekeena...

Hona hemen ariketaren hurrengo pausoak:

.4:

KANTAREN LETRA. BERRIRO ENTZUNGO DUZU KANTA ETA OSATU
FALTA DITUZUN MANAMENDUAK.

LANTEGIKO HAMAR MANAMENDUAK

Nagusiak dituzu maitatuko bai eta ahal bezain ongi zerbitzatuko	Ongi irabazten duzulako ez duzu emendazionerik galdatuko
Lanaren hasteko eta uzteko orduak dituzu beti errespetatuko	Lan presatu baten aitzinatzeko beharrez igandetan hartzea onartuko
Lanean denborarik ez galtzeko ez zara inoiz lagunekin solastatuko	Nagusiak hezten zaituelako agian ez diozu ezer ez ebatsiko
Nagusiak arrazoi duelako denetan ez zara haren kontra mintzatuko	Nagusiak baitira beharrezko sekulan ez duzu haien lan trabatuko
Telefonoa ez duzu ukituko ahalaz kanpotik ez zaitu inork deituko	Ta gauean langileek eskainiko pottotta ta ipurdi nagusiarendako

.5:

JAR ZAITEZTE TALDEKA ETA KOMENTA ITZAZUE KANTAK ZERTAN
DUEN ARRAZOI ETA ZERTAN EZ. ONDOREN, BOZERAMAILE BAT
AUKERATU KLASE AURREAN ZER KOMENTATU DUZUEN AZAL
DEZAN

Baina ez gara horrekin konformatuko, eta gehiago eskatuko diogu ikasleari, azken sprinta, bete duen prozesuaren hausnarketa txiki batera eramango dugu, ikasi duenaren, edota ez duenaren gogoeta batera. Eta zergatik hori? Ez ote gara ikaslea nahasten ari? Nola ote daki, bada, ikasleak zer ikasi duen edo zer ez? Ez ote da hori irakaslearen lana? Hainbat izan litezke arrazoiak, baina hona hemen batzuk:

Ikasleen ikasestrategiak bultzatzea.— Ikasleek hobeto ikasi ahal izan dezaten, estrategiarik emankorrenak bilatzen lagundu gura diegu. Hori xe du xede, hain zuzen ere, ikaslea ikasi duenaz gogoeta egitera sustatzek. Ahalegin horren azpian aholku hau doakio nolabait ikasleari: “Aizu! hau ikasteko egin duzuna estrategia ona izan liteke, baina zuk, beharbada, beste hizkuntzaren bat ikasi duzu, edo eskolan edo unibertsitatean ere ikasi egin zenuen, baduzu, beraz, horretan eskarmentua. Hainbat modu erabiliko zenituen, aurki, ikasteko; eta agian, aiseago eta hobeto ikasteko estrategiak erabiliko zenituen. Zergatik ez hartu tartetxo bat horretaz pentsatu eta estrategia horiek erabiltzeko?”

Hausnarketa horiek ondorio batzuk izatea.– Ikasleak ondorio batzuk atera beharko lituzke, ikasi duenari beste hainbat aplikazio eman diezazkion, kalean beste egoera batzuei aurre egin diezaien. Bide batez horrela haren autonomia bultzatuko dugu hizkuntza ikasten aurrera egin dezan bere aldetik, eta egon ez dadin irakaslearen pentzutari denbora osoan.

Ikasleek erantzukizuna hartzea.– Ikasleek euren ikasprozesuaren erantzule izan behar dute. Beraiek ikasi nahi dute hizkuntza eta beraiek izango dute arrakasta hizkuntza ikasten, horren jakitun egon behar dute.

Prozesuari bere garrantzia ematea.– Orain arte, agian, ez diogu horri garrantzi gehiegirik eman, izan ere, kanta bera iruditzen zitzaigun gauzarik inportanteena. Beraz, kantaren letrari hitz batzuk kendu, zinta jarri, bi, hiru, lau aldiz entzunarazi, hutsuneak bete, eta kito! dena bukatuta. Honela, birpasarazten diogu ariketaren prozesu osoa ikasleari, hasieratik bukaeraraino, helburuak lortu dituen ala ez azter dezan.

Honen guztiaren abiapuntua ondorengo galdera izan liteke:

.6:

BI MINUTUTAN PENTSATU ZER IKASI DUZUN KANTA HONETATIK ETA APUNTATU AZPIKO TULAN

SINTAXIA/MORFOSINTAXIA	LEXIKOA

Ikusten dugunez, ariketa osoa eginez gero, beharbada ez gara halako sententzio arraro bat dugula aterako klasetik, goian aipatu bezala, eta gainera, hoguei minutuan ariketa amaitu barik ordubete edo bi eman dezakegu klasean gustura, ikasiz, ez gramatika bakarrik, taldearen edo orduko garaiko gorabeherak edo dena delakoa ere; eta kantari errentabilitate handiagoa aterako diogu, beraz.

Baliteke, bai, kanta bat ikaslearen gustukoa ez izatea eta ariketaren pausoei hain gogobero ez jarraitzea, baina antzeko ariketak sortuko bagenitu, aukera handiagoa izango genuke batean ez bada bestean asmatzeko.